| | |
|---|---|
| **INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA (23.02.07)** | **ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (07.02.23)** |
| INGURUMENEKO HIRI ZERBITZU ETA INGURUMEN KALITATE ZERBITZUA ZINEGOTZI ARDURADUNA:<br>JOSEBA ARREGI jn. | CONCEJAL DE SERVICIOS URBANOS AMBIENTALES Y CALIDAD AMBIENTAL:<br>D. JOSEBA ARREGI |
| INGURUMENEKO TEKNIKARIA:<br>JOSU ATEKA jn. | TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:<br>D. JOSU ATEKA |
| FOROKO IDAZKARIA:<br>ARANTZA CABEZA and. | SECRETARIA DEL FORO:<br>Dª ARANTZA CABEZA |
| ZERBITZU TEKNIKOEN SAILA-ZERBITZU AZPIEGITURA<br>KEPA SACRISTÁN jn. | ÁREA DE SERVICIOS TÉCNICOS-INFRAESTRUCTURA SERVICIOS.<br>D. KEPA SACRISTÁN |
| AHOLKULARIA:<br>EUGENIA ATIN and. | CONSULTORA:<br>Dª EUGENIA ATIN |
| BERTARATUTAKOAK: | ASISTENTES: |
| XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)<br>TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)<br>JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)<br>KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)<br>IÑIGO AZKARATE jn. (Trinitarias)<br>KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria) | D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)<br>Dª TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)<br>D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)<br>Dª KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar),<br>D. IÑIGO AZKARATE (Centro escolar Trinitarias)<br>D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca) |
| Honako hauek ezin etorria azaldu dute:<br>JANIRE OCIO and. (Hirigintza, obra eta zerbitzu arloko zinegotzia), JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria), YENNY MEDRANO and. (Getxo Enpresako ordezkaria), JOSERRA OTEGI jn. (Ekologistak Martxan) eta EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja). | Excusan su no asistencia:<br>Dª JANIRE OCIO (Concejala del área de infraestructuras, obras y servicios), D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak), Dª YENNY MEDRANO (Representante de Getxo Enpresa), D. JOSERRA OTEGI (Ekologistak Martxan) y D. EMILIO MARTINEZ (Centro escolar Julio Caro Baroja). |
| Getxon, 2023ko otsailaren 7an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute. | En Getxo, a 7 de febrero de 2023 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados. |
| **GAI ZERRENDA** | **ORDEN DEL DÍA** |
| Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela. | Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados. |
| **1.-2022ko maiatzaren 24an egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.** | **1.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 24 de mayo de 2022.** |
| Aho batez onartu da. | Se aprueba el acta por unanimidad. |

**2.- 2030 Agendako (2020-2023ko) Ekintza Planaren gauzapenaren jarraipena.**

Eugenia Atinek azaldu du planaren betearazpenaren azken ebaluazioa egin dela udaleko teknikariekin izandako elkarrizketen bidez. Elkarrizketa horietan, ekintza bakoitzaren betearazpen-egoerari buruzko balorazio kualitatiboa egin da.

Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Planak 66 ekintza ditu. Udaleko teknikariek azaldutakoaren arabera, horietatik 49 ekintza aurreratuta daude, 13 ekintza hasi egin dira eta 4 ekintza hasteke daude. Azpimarratu behar da ekintza asko jarraituak direla eta, beraz, ez direla osatutzat joko 2020-2023 epealdia amaitu arte.

Jarraian, ekintza guztien errepasoa egin da eta aldi honetako lorpen nagusiak azaldu dira. Eztabaida sortu duten alderdiak jaso dira jarraian. Zehaztasun gehiago jaso nahi izanez gero, erantsitako ebaluazio-txostena aztertzea gomendatzen da.

Udal kudeaketako **1. ildo estrategikoari** heldu diote lehenengo eta behin. Udaleko langileek baliabideen erabilera murrizteari buruzko 1.1.3. ekintzari dagokionez, Koldo Nabaskuesek jakin nahi du ea, adibidez, paperaren aurrezpena nolabait kuantifikatzen den. Ez da kualifikatzen, eta zaila litzateke kuantifikatzea, beti baitaude izakinak. Javier Loidik galdetu du ea administrazioa digitalizatzen ari den, esaterako, sinadura elektronikoaren bidez. Kepa Sacristánek baietz erantzun du, eta legez behartuta gaudela herritarrei aukera ematera izapideak egiteko moduari dagokionez: digitalki edo aurrez aurre.

Informazioari eta parte-hartzeari buruzko **2. ildo estrategikoan**, 2.1.1. ekintzan, Karmele Urkijok esan du GetxoBerriri erakargarritasuna falta zaiola eta interesgarria litzatekeela kanpoko kolaborazioak gehitzea.
Koldo Nabaskuesen arabera, GetxoBerriren helburua zein den jakin behar da; ez du uste helburua informazio-egunkari bat izatea denik, baizik eta Getxon albiste garrantzitsuak transmititzeko komunikazio-kanal bat izatea. Iñigo Azkarateren iritziz, ondo dago, baina leku gutxi eta albiste asko dituzte eta, beraz, zerbait argitaratzea nahi baduzu, denbora dezente behar dute argitaratzeko.

2.2.1 ekintzari dagokionez, Xabi Buenetxeak Getxo Txukun zer den jakin nahi du. Teknikariek erantzun dutenez, herritarren partaidetzarako udalaren programa bat da. Horren bidez, gutxi gorabehera 2 urtean behin eragin-eremu bat aukeratzen da (Neguri, Setasuna eta abar), eta bizilagunen proposamenak jaso eta jarduketa batzuk burutzen dira.

Iñigo Azkarateren arabera, 2.3.3 ekintzan (Ingurumen Gelarekin eta jarduerekin jarraitzea), Ingurumen Gelan jarduera gehiago eskaini nahi badira eta arazoa ekonomikoa bada, Getxotik kanpoko ikastetxeei kobratzea erabaki daiteke. Nahiko polemikoa izango litzateke eta oraingoz ez da kontuan hartuko.

**2.- Seguimiento de la ejecución del Plan de acción de Agenda 2030 (2020-2023)**

Eugenia Atin explica cómo se ha realizado la evaluación final de la ejecución del Plan a través de entrevistas con los técnicos y técnicas del Ayuntamiento. Durante las entrevistas se ha realizado una valoración cualitativa del estado de ejecución de cada una de las acciones.

El Plan de Acción de Agenda Local 2030 se compone de 66 acciones de las cuales, según los técnicos y técnicas del Ayuntamiento, 49 acciones se encuentran avanzadas, 13 se han iniciado y 4 acciones están pendientes de inicio. Cabe destacar que muchas de las acciones tienen carácter continuo y por tanto no se van a considerar completadas hasta que no finalice el periodo considerado 2020-2023.

A continuación se hace un repaso de todas las acciones explicando los principales logros del periodo. Se señalan a continuación los aspectos que suscitaron el debate y se aconseja analizar el informe de evaluación adjunto para un mayor detalle.

Se comienza por la **línea estratégica 1** de gestión municipal. Con relación a la acción 1.1.3 sobre la reducción del uso de recursos por parte del personal municipal, Koldo Nabaskues desea saber si se cuantifica de alguna manera el ahorro por ejemplo de papel. No se hace y sería difícil de cuantificar porque siempre hay estocaje. Javier Loidi pregunta a ver si se está digitalizando la administración, por ejemplo a través de la firma electrónica. Kepa Sacristán responde que sí y que estamos obligados por ley a dar opción a la ciudadanía a elegir cómo hacer los trámites, si digitalmente o presencialmente.

En la **línea estratégica 2** de información y participación, en la acción 2.1.1., Karmele Urkijo comenta que a GetxoBerri le falta atractivo y que sería interesante añadir colaboraciones externas.
Koldo Nabaskues opina que hay que saber cual es el objetivo que persigue GetxoBerri, no cree que el objetivo sea ser un periódico de información sino más bien un canal de comunicación para transmitir noticias importantes en Getxo. Iñigo Azkarate opina que está bien pero que tienen poco espacio y muchas noticias y que por tanto si quieres que te publiquen algo tardan bastante en sacarlo.

Con relación a la acción 2.2.1., Xabi Buenetxea quiere saber lo que es Getxo Txukun. Los técnicos responden que es un programa de participación ciudadana del Ayuntamiento que aproximadamente cada 2 años selecciona un ámbito de influencia (Neguri, Setasuna…) y se recogen las propuestas de los vecinos y se hacen algunas actuaciones.

Iñigo Azkarate en la acción 2.3.3. Dar continuidad al Aula Medioambiental y sus actividades, comenta que si se quieran ofrecer más actividades en el Aula Medioambiental y el problema fuera económico, se podría optar por cobrar a los centros escolares de fuera de Getxo. Esto sería bastante polémico y por ahora no se contempla.

2.3.4 ekintzari dagokionez, Iñigo Azkaratek esan du Trinitarioetan airearen kalitatearen neurgailua dutela eta, udalak datu horiek behar baditu, pozarren partekatuko dituztela.

En el punto de la acción 2.3.4, Iñigo Azkarate comenta que en Trinitarias tienen un medidor de calidad del aire y que si el Ayuntamiento necesita datos que están encantadas de compartirlos.

Jarraian, hirigintza jasangarriari buruzko **3. ildo estrategikoa** aztertu da.

Seguidamente, se analiza la **línea estratégica 3** relativa al urbanismo sostenible.

3.1.2 ekintzan (Herritarrentzako espazio berriak sortzea edo horien erabilera optimizatzea), Koldo Nabaskuesek azaldu du hiri atseginerantz joanez gero, autoa ahaztu behar dugula, batez ere jabetza pribatuko ibilgailuak edukitzeaz. Gizarte asko ohituta daude auto propiorik ez edukitzera, baina Getxo ez. Ildo horretan, Txaro Arceniegak garraio publikoa bultzatzearen eta eskuragarriago bihurtzearen garrantzia azpimarratu du. Javier Loidik aukera berriak gehitu ditu, hala nola bizikletak eta patineteak. Koldo Nabaskuesek, orduan, hiriek eboluzionatzearen garrantzia nabarmendu du, hiriko kale nagusiak ez baitaude prestatuta mugikortasun pertsonaleko ibilgailu horietarako.

En la acción 3.1.2. de Creación de nuevos espacios para la ciudadanía u optimizar su uso, Koldo Nabaskues explica que si vamos hacia la ciudad amable, tenemos que ir olvidándonos del coche, sobre todo de tener vehículos en propiedad privada. Muchas sociedades están acostumbradas a no tener coche propio pero Getxo no. En este sentido Txaro Arceniega subraya la importancia de impulsar el transporte público y de hacerlo más asequible. Javier Loidi se suma incluyendo las nuevas opciones como las bicicletas o los patinetes. Koldo Nabaskues entonces resalta la importancia de que evolucionen las ciudades puesto que las arterias urbanas no están preparadas para estos vehículos de movilidad personal.

Etxebizitzari dagokionez (3.2.1 ekintza), Koldo Nabaskuesek araubide bereziko eta araubide orokorreko etxebizitzen arteko aldea jakin nahi du. Araubidea errentari dagokiola erantzun zaio. Araubide orokorra urtean 39 mila euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonentzat da. Araubide berezia diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonentzat da. Zentzu horretan, Javier Loidik pikarokeriaz galdetu du. Printzipioz, teknikarien arabera, zaila da, datu guztiak gurutzatuta baitaude. Beste gauza bat da diru beltza.

Con relación a la vivienda (acción 3.2.1), Koldo Nabaskues quiere saber la diferencia entre viviendas en régimen especial y régimen general. Se le responde que el régimen se refiere a la renta. Régimen general es para personas con ingresos inferiores a unos 39 mil euros anuales. El régimen especial es para personas con ingresos más bajos. En este sentido Javier Loidi pregunta por la picaresca en este ámbito. En principio, según el personal técnico, es complicado puesto que todos los datos están cruzados. Otra cosa es el dinero negro.

3.2.3 ekintzan, Karmele Urkijok esan du *co-housing*a oso interesgarria dela adinekoentzat (eta gazteentzat). Koldo Nabaskues bat dator, eta azaldu du Holandan eta Danimarkan ohikoa dela, oso ondo funtzionatzen duela eta gehiago sozializatzen dela. Kepa Sacristánek adierazi du Iturribarrin *co-housing*erako erreserbatutako lurzati bat dagoela.

En la acción 3.2.3. Karmele Urkijo comenta que el co-housing es muy interesante para las personas mayores (y las personas jóvenes). Koldo Nabaskues coincide y explica que en Holanda y Dinamarca es una práctica habitual y que funciona muy bien y se socializa más. Kepa Sacristán indica que en Iturribarri hay una parcela reservada para co-housing.

Javier Loidik, 3.2.4 ekintzari dagokionez (Etxebizitza hutsen erabilera sustatzea), zenbat etxebizitzaz ari garen jakin nahi du. Erroldaren arabera 3.100 etxebizitza inguru zirela erantzun zaio, baina egindako azterketaren ondoren 900 etxebizitza huts kontabilizatu ziren, eta hori ez da asko etxebizitza-parkea kontuan hartuta.

Javier Loidi,, en la acción A 3.2.4. Promover la utilización de la vivienda vacía, quiere saber de cuántas viviendas estamos hablando. Se responde que por padrón eras unas 3.100 viviendas pero tras el estudio que se llevó a cabo se contabilizaron 900 viviendas vacías, que no es mucho teniendo en cuenta el parque de viviendas.

3.2.5 ekintzan, Joseba Arregik zehaztapen bat egin du, etxebizitzen birgaitzearekin eta irisgarritasunarekin lotutako jarduketa asko egin direlako. Jarduketak egiten dituzten etxebizitzen kopuruari buruzko datuak jaso daitezke. Zentzu horretan, Txaro Artziniegak hobariak edo dirulaguntzak dauden jakin nahiko luke. Izan ere, EEEk birgaitze energetikoko obretarako dirulaguntzak kudeatzen ditu.

En la acción 3.2.5. Joseba Arregi, hace una puntualización ya que se han hecho muchas actuaciones relacionadas con la rehabilitación y la accesibilidad de las viviendas. Se podrían recoger los datos del número de viviendas que realizan actuaciones. En este sentido a Txaro Arceniega le gustaría saber si hay bonificaciones o subvenciones. Efectivamente, el EVE gestiona subvenciones para obras de rehabilitación energética.

Lorezaintzara pasatuz, lorezaintza naturaleko eredu bati buruzko 3.3.1 ekintzan, Kepa Sacristánek azaldu duenez, foro honen eskaera batean oinarrituta, zenbait belardi naturalizatzen ari dira. Hainbat espezieren nahasketa hidroerein da 6.000 $m^2$-tan Peña de Santamaría, Artaza Parkea, Iturribarri eta abarretako ezpondetan. Udalak, orain, hidroereiteko ekipo bat du jabetzan, eta, beraz, ohikoa izango

Pasando a jardinería, en la acción 3.3.1 sobre un modelo de jardinería natural, Kepa Sacristan explica que basándose en una petición de este Foro, se están naturalizando ciertas praderas. Se han realizado hidrosiembras de mezcla de especies en 6.000 m2 en taludes en Peña de Santamaría, Parque Artaza, Iturribarri, etc. El Ayuntamiento ahora cuenta con un equipo en propiedad para hidrosiembra y por tanto será una práctica habitual. En 5 o 6

da. 5 edo 6 hilabeteren buruan ezponden portaera ebaluatu ahal izango dugu. Puntu honetan, Xabi Buenetxeak espezie polinizatzaileen garrantzia azpimarratu du, eta Javier Loidik, berriz, belarra oso labur ez mozteko eskatu du. Kontua oreka bilatzea da, bizilagunak kexu baitira lorategiak "zainduta" ez badaude. San Inazion, adibidez, bi lorategi mota daude, bata klasikoagoa eta bestea basatuagoa. Xabi Buenetxeak bideetatik gertu estratuak uztea eskatu du.

Karmele Urkijok interesa agertu du Areetako Kale Nagusian zer-nolako landareak jarri diren jakiteko. Lore-gereziondo japoniarra da (*Prunus Serrulata Amanogawa*). Kepa Sacristánek Areetako geltokiko basoan jartzen ari diren espezie batzuen izenak ere zehaztu ditu; 82 espezieko 114 ale dira.

Foroaren beste eskaera bat ere kontuan hartu da, eta geltokian jarriko diren pergolek zuloak dituzte hegaztiek eta intsektuek habiak jartzea errazteko. Halaber, garbiketarako eta ureztaketarako ura aprobetxatzeko jarduketak eta lurzoruak iragazkortzeko jarduketak egiten ari dira.

Ildo horretan, Javier Loidik Getxoko lurzoru motei buruz galdetu du. Kepa Sacristánek erantzun du lurzoruak hareatsuak direla Areetan eta buztintsuak eta elkorrak Algortan. Oro har, dena usteltzen da, ez da ezer hazten hareharriaren higaduraren ondorioz, eta zaila da haztea. Artea oso ondo doa.

Kepa Sacristánek bidegorrien 3.4.1 ekintzaren harira gaineratu duenez, parte-hartze izaerako aurrekontuetatik ondorioztatu zen tarte batzuk hobetzeko beharra dagoela. Karmele Urkijok azpimarratu du garrantzitsua dela arauak errespetatzea eta bizikletak eta patineteak espaloietatik ez joatea. Oinezkoen abiadura berean joan daitezke bertatik.

3.4.6 ekintzari dagokionez, Iñigo Azkaratek bizikleta sistema berriaz galdetu du. Josu Atekak erantzun du Aparka zerbitzua 2022ko urriaren 31n amaitu zela eta Bizkaiko Foru Aldundiaren bizikleta elektrikoa ez dela 2023ko erdialdera arte iritsiko. Hortaz, sistema bat jarri behar zen bataren eta bestearen artean. Zerbitzu berria ondo dabil eta 2023 amaierara arte dago kontratatuta.

Aparkalekuetara igaroz (3.4.7 ekintza), Javier Loidik San Nikolas plazako aparkalekuaz galdetu du. Joseba Arregik azaldu du Ondareak aparkalekuak alokairuan jartzeko prozesua hasiko duela. Aparkalekuko lehen solairua trailerrentzat eta eszenografiarako izan zedin diseinatu zen, eta bigarrena eta hirugarrena emakida-araubideko egoiliarrentzat. Kontua da plazak atera zirenean haien prezioa merkatukoa baino handiagoa zela eta, ondorioz, tarifekin ez zen asmatu eta saldu gabe geratu ziren. Plazak alokairu-araubidera pasatu behar ziren, eta prozesua luzea izan da, baina azkenean aurrera egin da, eta interesdunek dagoeneko aurkeztu dituzte eskaerak (65 euro hilean gehi gastuak) eta laster adjudikatuko dira. Aparkalekua ez da txandakakoa, espazioak ez baitu horretarako aukerarik ematen; egoiliarrentzat bakarrik da.

meses podremos evaluar el comportamiento de los taludes. En este punto, Xabi Buenextea recalca la importancia de las especies polinizadoras y Javier Loidi pide que no se corte el césped muy corto. Se trata de buscar el equilibrio porque los vecinos se quejan si los jardines no están "cuidados". En San Inazio por ejemplo coexisten dos tipos de jardines, uno más clásico y otro más asilvestrado. Xabi Buenetxea pide dejar estratos cerca de los caminos.

Karmele Urkijo se interesa por saber el tipo de plantas que se han puesto en la calle Mayor en Areeta. Se trata del cerezo de flor japonés (Prunus Serrulata Amanogawa). Kepa Sacristán especifica los nombres también de algunas de las especies que se están poniendo en el Bosque de la estación de Areeta, 114 ejemplares de 82 especies.

También se ha tenido en cuenta otra de las peticiones del Foro y las pérgolas que se van a poner en la Estación tienen agujeros para favorecer la anidación de aves e insectos. También se están llevando a cabo actuaciones de aprovechamiento de agua para baldeo o riego  y actuaciones para la permeabilidad de los suelos.

En este sentido, Javier Loidi pregunta por el tipo de suelos en Getxo. Kepa Sacristán responde que los suelos son arenosos en Areeta y arcillosos y pobres en Algorta. En general, se pudre todo, no crece nada debido a la erosión de arenisca, es complicado el crecimiento. La encina va muy bien.

Kepa Sacristan añade en la Acción 3.4.1 de bidegorris que también salió de presupuestos participativos la necesidad de mejorar algunos tramos. Karmele Urkijo incide en la importancia de que se respeten las normas y que las bicicletas y los patinetes no vayan por las aceras. Solo pueden circular por aquí a velocidad de a pie.

Con relación a la acción 3.4.6, Iñigo Azkarate pregunta por el nuevo sistema de bicicletas. Josu Ateka responde que el servicio Aparka terminó el 31 de octubre de 2022 y la bicicleta eléctrica de Diputación de Bizkaia no llegaba hasta mediados de 2023 por lo que había que poner un sistema entre uno y otro. El nuevo servicio funciona bien y está contratado hasta finales de 2023.

Pasando a los aparcamientos (acción 3.4.7), Javier Loidi pregunta por el parking de la plaza San Nicolas. Joseba Arregi explica que Patrimonio va a iniciar el proceso para poner las plazas en alquiler. Este parking fue diseñado para que la primera planta fuera para trailers y escenografía y la segunda y tercera para residentes en régimen de concesión. Lo que pasó es que el precio con el que salieron las plazas era superior al de mercado y por tanto no se acertó en las tarifas y se quedaron sin vender. Había que pasar las plazas a régimen de alquiler y el proceso ha sido largo pero por fin se ha desatascado y las personas interesadas ya han presentado las solicitudes (65 euros al mes más gastos) y pronto se adjudicarán. El parking no es de rotación porque el espacio no lo permite, es solo para residentes.

3.5.2 ekintzan (Administrazio- nahiz merkataritza-zentroen eta hondartzen konexio irisgarriak), Kepa Sacristánek azaldu du Usategin luizia bideratzeko obrak adjudikatu direla.

En la acción 3.5.2. Conexiones accesibles a centros administrativos, comerciales y playas, Kepa Sacristán explica que se han adjudicado las obras para reconducir el desprendimiento en Usategi.

Joseba Arregik bide publikoan ondarea dugula azaldu du, hondartzarako eskailerak adibidez. Ez daude mantenduta, eta asmoa Punta Begoñako proiektuan sartzea litzateke. Hala, Karmele Urkijok galdetu du ea zerbait egin daitekeen Punta Begoñaren balioa bisualki ikustarazteko. Joseba Arregik erantzun dio fatxada modu zientifikoan zaharberritzen ari direla eta balioa prozesu horretan dagoela. Kultur paisaia bat da. Bisitetan aldi bakoitzean istorio bat azaltzen dizute, Punta Begoñari eman zaizkion erabilera ezberdinak. Horixe da balioa, historia.

Joseba Arregi aprovecha para explicar que tenemos patrimonio en la vía pública, por ejemplo las escaleras a la playa. No están mantenidas y la idea sería incluirlas en el proyecto de Punta Begoña. Aquí, Karmele Urkijo pregunta a ver si se podría hacer algo para que visualmente se viera el valor de Punta Begoña. Joseba Arregi responde que se está restaurando la fachada de manera científica y que el valor esta precisamente en este proceso. Es un paisaje cultural, en las visitas cada vez te explican una historia, los diferentes usos que se le han dado a Punta Begoña. Ése es el valor, la historia.

Xabi Buenetxeak Real Socorron dagoen kobazulo itxi bati buruz galdetu du. Eraikuntza zibil batek estaltzen du. Kostaldeko puntu batera daraman tunela izan daitekeela uste da. Hareharrizko harrobi bat zegoen, eta eraikuntza-tunel bat izan liteke.

Xabi Buenetxea pregunta por una cueva cerrada que hay en el Real Socorro. Está tapiada por una construcción civil. Se cree que podría ser un túnel que lleva a un punto de la costa. Había una cantera de arenisca y podría ser un túnel de construcción.

Azkenik, hasteko dauden ekintzetako batzuk aztertu dira, baina Foroaren hurrengo bileran zehatzago ikusiko dira.

Finalmente, se examinan algunas de las acciones que están pendientes de inicio pero se verán más en detalle en la próxima reunión del Foro.

**3.- Galde-eskeak.**

**3.- Ruegos y preguntas.**

Karmele Urkijok Romoko banku berriei buruz galdegin du; izan ere, argazkien arabera, badirudi ez dutela bizkarrik izango. Kepa Sacristánek erantzun du badituztela bizkarrak, ez dadila inor kezkatu.

Karmele Urkijo pregunta por los nuevos bancos de Romo que por las fotos parece que no van a tener respaldo. Kepa Sacristán responde que sí que vienen con respaldo, que no se preocupe nadie.

Beste gai bat bankuen erabilera txarra da, alegia, gazteak bizkarrean esertzen dira, eta oinak bankuan jartzen dituzte. Hori gizalege- eta hezkuntza-kontua da, txakurren gorotzekin gertatzen den bezala; Mesedeetako kaleko ezpondan eta Venancion, adibidez, jabeek ez dituzte txakurren kakak biltzen.

Otro tema es el mal uso que se hace de los bancos, que las personas jóvenes se sientan en el respaldo y ponen los pies en el banco. Esto es una cosa de civismo y educación, como pasa con los excrementos de los perros, que hay zonas como por ejemplo en el Talud en las Mercedes y en Venancio donde los dueños no recogen las cacas de sus perros.

Gaur berrikusteko astirik eman ez duten 4. eta 5. ildoetako ekintzak Foroak apirilean egingo duen hurrengo bileran berrikusiko dira.

Las acciones de las líneas 4 y 5 que hoy no ha dado tiempo a revisar, se repasarán en la próxima reunión del Foro en el mes de abril.

21:10ean, bilera amaitutzat jo da.

A las 21:10 horas se da por finalizada la reunión.